

Euskaltzaindiaren XIII. Jagon Jardunaldiak

Euskara, kontsumoa eta hizkuntza eskubideak

2008/123 Dekretuari buruz eta eremu pribatuan euskara indarberritzeari buruz mahai inguru hau eratu du Euskaltzaindiaren Sustapen Batzordeak. Helburua zenbait erakunde eta enpresen iritzi sorta bat entzutea eta eztabaidatzea.

Jardunaldion puntu honetan niri dagokit moderatzaile lana egitea, batzordeak hala izendaturik.

Hara hor, labur bilduz, mahaikideen eta bakoitzak jorratuko dituen gaien aurkezpena:

1.- Leire Barañano andrea da lehen iritzi emailea. Gainazal handietatik EROSKI hautatu dugu ordezkari gisa eta honen bere ikuspegia azalduko du. Euskal Herriko kooperatiba enpresa handi honen ikuspegia emango du, aspalditik bai dihardu neurri desberdinetako saltokietan euskalduntze ahaleginetan. Orobat, bere produktu zurien etiketajeak Espainiar Estatutuko lau hizkuntzak normalizatzea martxan duela astero ikusten dut.

2.- Mikel Irizar Kutxako Kultura, Gizataldeak eta Lankidetzak sailaren arduraduna da bigarren hizlaria. Berari hitza eman baino lehen gogoratu behar dut aurreko Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala eta Bizkaiko Aurrezki Kutxa - terminologia zaharrean Bizkai Erasketxea - izan zirela II Errepublika garaian eta lehenagotik ere kutxa bi horiek euskaraz edo elebidun egiten zituztela bezeroen aurrezki libretak, nekazaritzako sariketa egitarau eta publizitateak ere bai, sukurtsal edo agentzietako errotulazio elebidunak - etxe hauek Bizkaian Foralen eta Gipuzkoan Mikeleteen etxeetan zeuden herri askotan (Durango, Berriz eta Ondarroako etxe horiek oraindik zutik daude) - eta hortaz proposamen bat plazaratu nahi dut:

Kutxa biok bat egiten badute laster eta uste dut hemen dagoela BBKren ordezkaria ere ikerketa historiko bat egin dezala Kutxa bateratuak gerra aurreko euskararen erabilpenarena. Aitzindariak izan baitziren, onuragarria litzateke gutxi batzuk dugun horren albiste urria aberasteko eta Bizkai-Gipuzkoetako bezeria eta gizartearen jakinerako.

3.- Jon Aldaiturriaga da hirugarren iritzi emailea. Berau Bilboko Alde Zaharreko Merkatarien Elkarteko zuzendari-kudeatzailea. Bilboko Alde Zaharra, hobeto deituta, Bilboko Zazpikaletako dendari ertain eta txikien sarearen ordezkari dakar Aldaiturriaga jaunak, Bizkaiko eskualde euskaldunen merkataritza gunerik

ohikoena. Berari dagokio, beraz, Dekretu honek Zazpikaletakoei sortzen dizkien arazo eta abantailen berri azaltzea.

4.- Kepa Jugo da Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberaren ordezkaria. Jugo jauna ekonomilaria da. Badakit, bere saileko arduradun nagusiek esanda, Dekretuarekiko gai hau sakonki aztertu dutela Euskal Herriko erakunde garrantzitsu honetan. Berak, azalduko du, beraz, Ganberaren iritzia.

5.- Ainhoa Mendiola da, mahai honetan mintzatuko den azken ordezkaria. Kontsumitzaileen zenbait elkargo edo federazio daude Euskal Herrian eta, hemen, hurbilen duguna hartu dugu, beste lau erakundeen sektoreekin egin dugun bezalaxe. Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoko buru den Jon Ariño jaunarekin etorri da egoitza akademiko honetara eta elkargoko Gabinet Juridikoko kide legez bere iritzia azalduko du.

Bilbon, 2008ko azaroaren 21ean
Jose Luis Lizundia, Sustapen batzordeko kidea.